

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Administrazioarekiko auzi errekurtsora epatzea

Arratzua-Ubarrundiako Udalak erabaki du, Alkatetzaren uztailaren 8ko 190/2019 Dekretuaren bidez, alderdi demandatu gisa agertzea administrazioarekiko auzi errekurtsuan. Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3 zenbakiko Epaitegian izapidetu zen administrazioarekiko auzi errekurtsua -320/2019-V zenbakiko prozedura arrunta. Errekurtso hori A. eta U. R. de A. Z. jaunek jarri zuten Alkatetzaren apirilaren 17ko 78/2019 Dekretuaren aurka, zeinak ezetsi egin baitzuen etxe bat aurri deklaratzeko eskaerari buruz auzi-jartzaileek jarritako berraztertze errekurtsua, eta epe jakin bat ezarri baitzuen etxe hori konpondu, kontserbatu eta birgaitzeko proiektua aurkezteko.

Iragarki honen bidez jakinarazten zaie espedientean interesa izan lezaketenei, eta jakinarazten bederatzi egun dituztela, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aipatutako epaitegian agertu eta beren interesak aldezteko.

Dura, 2019ko uztailaren 8a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE